










HIZTEGIA		
Harana	Harana edo ibarra sakonune, depresio edo beheragune geografiko bat da, lautada edo mendigune batek mugatua, inklinatua eta luzean eratua, ibai bat iraunkorki zeharkatzen edo zeharkatu duena	
Mendia	Mendia lur kontinentaleko erliebe-forma bat da, inguruneko lur-mailatik goraka doan malda bati esker altxatzen dena, gizakiaren begien bistan goragune handi gisa agertzen dena.	
Mendikatea	Mendikateak elkar loturik dauden mendien zerrenda luzeak dira, ehunka edo milaka kilometrotan zehar, horien artean dauden haran eta beste unitate geografikoekin batera, ikuspuntu geologiko batetik batasuna erakusten dutenak.	
Isurialdeak	Isurialde hidrografikoa, itsaso edo aintzira batera ura isurtzen duten ibaien arrozen multzoa.	
Banalerroa	Uren banalerroa elkarren ondoan dauden bi isurialde hidrografikoren arteko muga da.	
Ordokia	Ordokia, lautada, ordeka edo zabaldia erliebe geografiko mota bat da, maldarik gabeko eta garaiera txikiko lur eremua	

Sakogunea	Inguruko lurrazala baino beherago dagoen erliebea izendatzeko erabiltzen den hitza da.	
Ibaiadarra	Ibaidarrak urak beste ibai batera isurtzen dituen ibaia da.	
Itsasadarra	Itsasadarra lehorrean barneratzen den itsas zatia da	
Golkoa	Golkoa bi lurmuturren arteko itsaso zatia da, badia baino handiagoa.	
Urtegiak	Ur metaketak dira, eta presa bat eraikita ibai baten ibilgua itxiz sortu ohi dira.	